

**ERABAKIA, 2021eko apirilaren 30ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2021eko urtarrilaren 28ko gerentearen erabaki bidez deitutako "Gestioko Teknikarien Eskala (Ekonomia)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko.**

Gerentearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez "Gestioko Teknikarien Eskala (Ekonomia)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2021eko martxoaren 24an onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** "Gestioko Teknikarien Eskala (Ekonomia)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikokoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web\_orrian argitaratzeko agindua ematea.

**Hirugarrena.-** Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko apirilaren 30ean

UPV/EHUKo GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Arteché

